

Tafalla

Aurkibidea

Udalerria: Tafalla

Sarrera



Nafarroa Garaiko erdialdeko udalerria, Erriberriko merindadeko jendetsuena.

- **Biztanleak:** 10.621
- **Euskaldunak:** %5,66

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **7**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **7**

Proiektuak

- Periferiaren mugak

Hizlariak

Haizea Lizarbe Boneta (1989)

Tafallakoa da Haizea Lizarbe. Txikitatik euskara ikastolan jaso du eta ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera izan du, baita lanean euskaraz aritzekoa ere. Errigorako kidea da, eta orain Agerraldia ekimen berriaren bultzatzaileetako bat da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Euskararekiko jarrera eta egoera Tafallan (TAF-001/002)

Tafallan urtez urte aldatzen joan da euskararekiko jarrera.

2. Egun oso bat euskaraz Tafallan? (TAF-001/003)

Geroz eta aukera gehiago dauden arren, ezin da egun oso bat euskaraz pasa Tafallan.

3. Tafalla, eremu ez euskaldunetik mistora (TAF-001/004)

2017an Nafarroako Euskararen Foru Legean aldaketak egon ziren eta Tafalla eremu ez euskaldunetik eremu mistora pasa zen.

4. Errigora eta Agerraldia ekimenak (TAF-001/006)

Errigora ekimenak hiru helburu nagusi ditu: elikadura burujabetza, euskara bultzatzea eta auzolanean lan egitea. Orain, Agerraldia ekimena sortu dute, euskara bultzatzen duten taldeen saretze bat sortzeko, baita euskararen erabilera sustatu eta euskal zaletasuna pizteko.

5. Asia euskaraz bultzatzen (TAF-001/008)

Asialdia euskaraz topatzea zaila da Tafalla aldean baita Iruñetik beherako nafar eremuan ere. Hori aldatzeko lan egingo du Agerraldiak.

6. Tafalla, euskararen periferian (TAF-001/009)

Euskal Herriko mugak kontuan hartuta, Tafalla periferian kokatzen ez den arren, euskararen periferian kokatzen da.

7. Euskararen etorkizuna Tafalla inguruan (TAF-001/010)

Tafalla aldean aurrerapausoak ematen ari direla uste du Haizea Lizarbek. Jendea eta elkarteak prest daude euskara bultzatzeko eta hitz egiteko, beraz, aurrera jarraituko dutela uste du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com